



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 7a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributu-hezkuntzako programa bat susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erkidegoko hiltegiatan telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez instala daitezten. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –"denek dute hezkuntzarako eskubidea"– eta 27.2 artikulua –"hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan"–. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkariak, trafiko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (7. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa (22. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako 2020. urterako plantilla organikoa eta 2019ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda (29. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko martxoaren 13ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proiektua 2019ko abenduaren 13ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/LEY-00017).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributuzko programa bat susta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributuzko programa bat susta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du departamentuen arteko akordio bat bultzatuz, ikasgeletan emateko den hiritar- nahiz tributuzko programa bat sustatzea helburu”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan,

babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabe horiek erabat gizarteratzeko garatu beharreko programak garatzen jarrai dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, adingabe hauek erabat gizarteratzeari begira, ondokoak bermatzeko nahikoak diren programa eta proiektu gara ditzan: balorazio egokia, haientzat egokiena den baliabidean ostatu ematea, mantenua, prestakuntza eta aisialdiko jarduerak.

4. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du jarrera arrazista, xenofobo

nahiz babesik gabeko adingabeen kriminalizazioa bilatzen duen oro.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan adingabe horiek autonomia erkidegoen

artean modu ordenatu eta orekatuan banatzeko, bai eta gizarteratzeko plan nazional bat abian jar dezan ere”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erkidegoko hiltegieta telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez instala daitezen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan gure erkidegoko hiltegieta telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez instala daitezen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lege proiektu bat aurkez dezan, gure erkidegoko hiltegieta telebista bidezko zirkuitu itxiak nahitaez instala daitezen, albitari ofizialen zerbitzuen kontrol-eginkizunaren osagarri”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121-A errepidean ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan bere zerbitzu juridikoen bidez, errepide horretako segurtasuna areagotzea eta istripu-kopurua gutxitzea xede”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko gehieneko epean alda dezan foru araudia –zehazki, 142/2004 Foru Dekretua–, gure erkidegoan etxebizitzari dagokionez dauden beharrian berriei lekua egiteko”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –”denek dute hezkuntzarako eskubidea”– eta 27.2 artikulua –”hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan–”.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –”denek dute hezkuntzarako eskubidea”– eta 27.2 artikulua –”hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan–”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –”denek dute hezkuntzarako eskubidea, eta irakaskuntza-askatasuna aitortzen da”– eta 27.2 artikulua –”hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna

osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan”–.

2. Zain dezan betetzen direla Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legea eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea. Izan ere, lege horiek Nafarroan hezkidetzaren sistema bat bermatzen dute, berdintasunari buruzko eta genero indarkeriari aurrea hartzeari buruzko edukiak derrigorrezko gisa ezarrita.

3. Jarrai dezan diru publikoz finantzaturako ikastetxe guztietan Skolae programa ezartzen, eta indartu ditzan programa hori eta Hezkuntza Departamentuak ezarritako LGTBI protokoloak bete daitezela bermatuko duten neurriak.

4. Berma dezan pentsamendu-pluraltasuna eta bizikidetasun-, begirune- eta tolerantzia-printzipioen irakaskuntza, zeina baita gizarte demokratiko batek derrigorrezko hezkuntzako ikasle

guztiei eman behar diena, Europako Kontseiluak gomendatzen duen bezala.

5. Kanpaina bat susta dezan irakasleen profesionaltasunari eta independentziari babesa emateko, halatan sustatze aldera pentsamendu-askatasunean eta ikasleen gaitasun kritikoaren garapenean oinarritutako hezkuntza bat”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkari, trafikoko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz dei diezaien Nafarroak Transferentzia Batzordean dauzkan ordezkari, trafikoko eta bide-segurtasunaren arloko eskumen eskusiboa Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzea gauzatzeko, halako moduz non trafikoko Guardia

Zibila ez den gabetuko egun dituen eginkizunez”. Mozioa Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2020ko urtarrilaren 24ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruzaingoan “ordu-poltsa” ezartzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko eskaera egin du Foruzaingoaren ordu-poltsarekin lotutako datuei buruz (PES-00134). Nafarroako Gobernuako Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren txostena igortzen dizu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

1. “Ordu-poltsa”ri buruzko akordioa Foruzaingoaren Mahai Sektorialean lortu zenez geroztik, zergatik Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak ez du hura aplikatu?

Foruzaingoaren 2018ko abenduaren 13ko Mahai Sektorialean, bilkurako aktan gai-zerrendako 4. puntuari —“ordu-poltsa” izenekoari— buruz jasotakoaren arabera, Lehendakartzako, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilariak honako hau ohartarazi zuen: “Beharrezkoa da hainbat sindikaturen eta hainbat talde parlamentarioren arte-

ko akordioan jasotako ordu-poltsaren eredu berri hori konpentsatzeko ordainsari-osagarri berri bat jasotzea ahalbidetuko duen arau bat edukitzea, eta, horretarako, 2019rako Aurrekontuen Foru Lege berrian jaso da, azken xedapen batean, gehitzeko zuzenketa baten bidez”.

Geroago, 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Foru Legearen azken xedapenetako zazpigarrenean, Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen aldaketa sartu zen, 57.1.c artikuluari h) letra berri bat gehitzeko, honela idatzita:

“h) Konpentsazioa ordutegirako eskuragarritasunagatik”.

Xedapen hori legez kanpokoa zela ohartarazi zuen Estatuak, eta kasuko negoziazio-izapidea ireki zuen Estatuako Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzaren Batzordean, eta Estatuako Aldizkari Ofizialaren 2019ko urriaren 14ko 247. zenbakian argitaratutako konpromisora iritsi zen, Lurralde Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiaren 2019ko irailaren 25eko Ebazpenaren bidez:

“a) Nafarroako 2019rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 24ko 27/2018 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du manu horrek jasotzen duen ordu-prestasunaren konpentsazioaren ordainsari-kontzeptua 2019rako aplikatzeko ez izateko. Haren eraginkortasuna erregelamendu bidezko garapenaren mende egonen da, zeinak oinarritzko legerian baimendutako ordainsari-igoeretara egokitu beharko baitu, eta ordainsari-kontzeptu hori 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3.Bi artikuluan baimendutako gehieneko ehunekoaren kargura finantzatuko da, batez ere oinarritzko arau horren laugarren paragrafoko funts gehigarriaren kargura, edo, hala badagokio, hura ordeztzen duen edo aplikatzeko den araudian ezarritakoaren kargura”.

2. “Ordu-poltsa” delakoa Foruzaingoan noiz aplikatu dadila aurreikusten du Departamentuak?

Ordainsari-osagarria ezartzeko erregelamendua garatzeko beharra ikusita, Foruzaingoak eta Barne Zuzendaritza Nagusiak xedapen orokor bat egiteko prozedura hasteko eskatu zuten, Lehendakaritza Nagusiak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren azaroaren 22ko 141/2018 Foru Aginduaren bidez. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foruzaingoaren Jardunaldien eta Ordainsarien Erregelamendua onesteko foru dekretu proiektu bat egiteko prozedura hasi zen.

“Ordu-poltsa” deitutakoa lanaldien, ordutegien eta ordainsarien araudiaren zati bat da, zeina une honetan egiten ari baita eta ordezkari sindikalari bidaliko baitzaio, egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten, ahalik eta lasterren.

Behar besteko sendotasunez eta segurtasun juridikoaren printzipioarekin bat datorren testu bat egiteko, alde aurretik behar bezala definitu behar dira hainbat kontu, eta horien artean nabarmena da Foruzaingoaren lanpostuen balorazioa amaitzeari dagokiona, azken horrek Foruzaingoko agenteen ordainsari-kontzeptuetan eragina izan eta horiek alda ditzakeen neurrian.

Lanpostuen balorazio-azterlana kanpoko enpresa bati adjudikatu zitzaion, balorazioan inpartzialtasun handiagoa bilatuz, eta urte honen amaieran entregatuko da. Horri esker, hura aztertu eta ebaluatu ondoren, jardunaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko proiektuaren gaineko eragina neurtu ahal izanen da.

Beraz, eta esku artean ditugun izapideen garrantzia kontuan hartuta, ondoriozta daiteke Departamentuak eta, zehazki, Foruzaingoaren Buruzagitzak ez dutela “ordu-poltsa” ezarri, uste baitute oso garrantzitsua dela lanpostuen balora-

zioa amaitzea eta Foruzaingoko agenteen ordainsari-kontzeptuak behar bezala modulatzeko.

3. “Ordu-poltsa”n izen emandako Foruzaingoaren langileek eginiko orduak ordaintzea ahalbidetuko duen ordu-kontentsazioko osagarriaren kostua egotziko al zaio Nafarroako Gobernuako soldata-masaren osotasunerako aurreikusten den gehikuntza globalari, ala bestelako tratamendu bat izanen du, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorren I. kapituluaren gehikuntzaren gainekoa?

“Ordu-poltsa” horren balorazio ekonomikoa aplikatzeko atalaren barruan, kontuan hartu behar da zenbateko hori aldakorra izanen dela; hain zuzen, aplikatu beharreko baldintzak betez borondatez gehitzen zaizkion langileen arabera.

Foruzaingoaren antolaketa-errealitatean lehen hurbilketa eginez gero, gehienez ere 432 agentek har lezake aipatutako poltsa, hots, C mailako 399 agentek (agenteak edo lehen agenteak) eta B mailako 33 agentek (inspektoreordeak).

Osagarri berriaren balorazio ekonomikoa eta horrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-egituran izan dezakeen eraginean, kontuan hartu behar da “ordu-poltsa” horrek ordeztuko dituela gerora sortutako egoeretatik eratorritako aparteko orduen ondoriozko deiak, erantzun honen xede den figuran sartzen direnak.

Hala ere, balizko gehikuntza oinarritzko legerian ordainsari-igoerentarako ezarritako mugen esparruan hartu behar da kontuan, eta, horrekin ahaleginak eginen dira erregelamendu-arauek etetea edo aplikatzea ekar lezaketan gatazkak sor daitezkeen saihesteko.

Iruñean, 2019ko azaroaren 5ean

Barneko zuzendari nagusia: María Amparo López Antelo

Galdera, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzeak duen kostuari buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 8ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du Oinarrizko gizarte zerbitzuetan eta osasun etxeetan Tramit@ sistema ezartzearen kostuari buruz (10-19/PES-00149). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Kostua ezin zaie egotzi oinarrizko gizarte zerbitzuei, aplikazioa garatzen baita haiek hura bereizketarik gabe erabil dezaten.

Tramit@ sistema ezartzearen kostua, urteka banakatuta, honako hau da:

Urtea	Garapenaren kostua	Prestakuntzaren kostua
2013	26.398,89 €	
2014	53.211,09 €	
2015	25.389,31 €	
2016	49.148,19 €	1.688,75 €
2017	44.929,41 €	2.896,25 €
2018	1.878,22 €	2.467,5 €
2019	35.196,18 €	1.925 €
Guztira	236.151,29 €	8.977,50 €
		245.128,79

Kostuak aurrekontu-partida hauen kargura ordaindu dira:

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuentzako garapen-eta prestakuntza-gastuak, honako partida honen kargura: 900008 92100 6092 233100 Modernizazio proiektuak.

- Osasun-etxeetako prestakuntza-gastuak Eskubide Sozialetako Departamentuaren kargura,

honako partida honen bidez: 920000 93000 2266 231000 Hitzaldiak, kongresuak eta ikastaroak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez..

Iruñean, 2019ko azaroaren 27an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du oinarritzko gizarte zerbitzuetan eta osasun e-txeetan Tramit@ sistema ezartzearen kostuari buruz (10-19PES-00149). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak informatzeko duena:

Osasun Departamentuari 3. eta 4. puntuei erantzutea dagokio.

Osasun Departamentuaren mendeko zentroetan Tramit@sistema ezartzearen kostua erdibana finantzatu zuten Osasun Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak. Osasun Departamentuari dagokion zatiaren erdia Oinarritzko Osasun Laguntzako Gerentziaren kontura izan zen, eta beste erdia Eriari Osasun Laguntza emateko Zuzendaritzako Osasun Laguntzaren Eragin-kortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuaren kontura.

Prestakuntza-egitaraua ondoren zehazten duguna da.

	Javier Gabriel Roig Garro	
	Lehen seihilekoa	Bigarren seihilekoa
1 ordu. Baliabideei buruzko Lanaldia (% 25, Zerbitzu Nagusiak)	Ekainaren 11 14:00etatik 15:00etara	Irailaren 17a 14:00etatik 15:00etara
TRAMITARI buruzko 3 prestakuntza-saio, 4 ordukoak, A taldea. Conde Olivetoko informatikako ikasgela (% 25, Zerbitzu Nagusiak)	Ekainaren 17a, 19a eta 21a, 8:30etik 12:30era	
TRAMITARI buruzko 3 prestakuntza-saio, 4 ordukoak, B. taldea. Conde Olivetoko informatikako ikasgela (% 25, Zerbitzu Nagusiak)		Irailaren 30a, urriaren 2a eta 4a 8:30etik 12:30era
GESTIONARI buruzko 4 prestakuntza-saio, 4 ordukoak, A eta B. taldeak. Conde Olivetoko informatikako ikasgela (% 25, Zerbitzu Nagusiak)		Irailaren 10a eta 12a, azaroaren 26a eta 28a, 8:30etik 12:30era
Guztira	161,76 €	364,11 €

Zenbatekoa, guztira: 525,87 € Honako partida hauen kargura:

547001-52300-2266-312200, "Prestakuntza-jarduerak", Oinarritzko Osasun Laguntzako gastuaren aurrekontutik.

540006-52822-2266-311100, Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuko "Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak"

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Santos Indurain Orduna

Galdera, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 28ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu

du —2019ko urriaren 11ko 2271 sarrera-zenbakia du, 10-19/PES-00115— “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga-pizgarriak ezartzeko aukerari buruz. Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak informatu behar dio “carried interest” delakoari buruz Gipuzkoako araudian ezarri diren zerga-pizgarriak aztertu direla, bai eta Bizkaian sartu direnak ere, eta zenbait zerga aldatzeko foru lege proiektuari aurkeztutako zenbait zuzenketaren bitartez Gipuzkoan ezarritakoen antzeko neurri batzuk jaso direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 28ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19/PES-00120 idatzizko galdera errepikatu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna. Galderan ondoko hau eskatzen du:

...”azaroaren 18an Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren erantzuna jaso genuela, zeinean 1., 2. eta 4. puntuei erantzuten baitie; alabaina, ez die ez 3. puntuari eta 5. puntuari erantzuten, eta horretarako alegatzen du partidarik ez dagoela konpentsazio-lanaldiak ordaintzeko, eta urte amaierara arte ez dela gastu erreal metatua ezagutuko.

Partida espezifikorik ez badago, zer partidaren kargura finantzatzen ari diren zehaztea eskatzen da, eta gastu erreala zehatza ez bada ere, parlamentari honek jakin nahi du zer gastu erreal metatu den 10-19/PES-00120 idatzizko galderaren 5. puntuan eskatutako kontzeptuetan, 2019ko urtarrilaren 1etik informazio-errepikapen horri erantzuten zaion egunera arte”.

Horri erantzuteko, ondoko informazioa ematen dugu:

543000 52200 1710 312300 Produktibitate-osagarria

545000 52400 1710 312300 Produktibitate-osagarria

546000 52500 1710 312300 Produktibitate-osagarria

	2019ko URTEA		
	AUTOITUNTZEA	ITXARON-ZERRENDA	LANALDIAREN LUZAPENA
URTARRILA	244.906,83	70.913,71	7.277,64
OTSAILA	208.994,09	82.750,66	9.881,95
MARTXOA	153.134,98	95.750,63	6.286,92
APIRILA	193.746,75	84.609,38	12.941,54
MAIATZA	179.808,13	94.412,50	8.342,22
EKAINA	210.245,51	110.188,58	14.543,81
UZTAILA	166.109,16	92.970,60	12.123,86
ABUZTUA	319.510,90	24.723,68	15.778,20
IRAILA	325.515,87	43.289,43	9.877,38
URRIA	377.428,52	63.490,17	10.418,47
AZAROA	371.653,11	120.379,73	14.614,68
ABENDUA	395.521,70	153.169,14	21.073,73

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du kontratuei buruzko Foru Legearen aplikazioz 2018an irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat erreserbatutako kontratuei buruz (10-19/PES-00130). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera, 2018an erreserbatutako kontratuen portzentajea % 2,11 izan da.

Erreserba orokorra 2.469.832,90 eurokoa izan zen, eta zenbatekoen banaketa, departamentuen arabera, honako taula honetan jaso da:

Departamentua (2018)	2018ko erreserba
Garapen Ekonomikoa	57.214,26 €
Eskubide Sozialak	330.781,03 €
Ogasuna	37.788,19 €
Lehendakaritza	48.158,89 €
Herritarrekiko Harremanak	99.824,07 €
Hezkuntza	119.848,35 €
Osasuna	899.392,57 €
Kultura, Kirola eta Gazteria	37.958,84 €
Landa Garapena	838.866,70 €
Guztira	2.469.832,90 €

Kontratuei buruzko Legean ezarritakoaren arabera, legezko ehunekoa aurreko urtean lizitatutako kontratuen esleipen-zenbatekoaren arabera kalkulatu da.

Kontratuei buruzko Foru Legearen 36. artikulutik eratorritako betebeharren betetze-mailaren ebaluazioa kalkulatzeko erabilitako metodologia aurreko ekitaldiko berbera da. Aipatu behar da kalkuluaren automatizazioari buruz lan egin dela, hartara sistema deklaratihoa saihestuz, ez baitzen oso zehatza.

Erreserba sustatzen eta kontrolatzen duen organoa Enplegu Babestua Laguntzeko Batzordea da. 2016ko urriaren 5eko gobernu-erabakiaren bidez, batzorde horren osaera aldatu zen, eta kide-kopurua 6tik 11ra handitu zen. Aldaketa horren bidez, kontratu publiko gehien kudeatzen dituzten Administrazioako ordezkariak (Hezkuntza

eta Osasuna) sartu ziren, bai eta toki administrazioen ordezkariak eta enplegu-zentro berezi eta gizarteratzeko eta laneratzeko zentro guztien ordezkariak ere.

Batzordea urtean behin edo bitan biltzen da erreserbaren exekuzioaren berri emateko eta hurrengo urterako lan-ildoak planteatzeko.

Azken bilera 2019ko ekainean egin zen.

Ez da bileren aktarik egiten, baina exekuzio-txostena eta lan- proposamenak banatzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 16an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruzainen erretiro aurreratuari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera bat egin du (PES-00133). Planteatutako galderari erantzuteko, Barne Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena igozten dugu:

Zuzendaritza Nagusi honen artxiboak kontsultatu dira egindako galderari dagokionez, eta honako dokumentu hauek daudela egiaztatu da:

– Gizarte Segurantzako zuzendari nagusiaren 2017ko urriaren 9ko Erabakia, koefiziente murriztaileak ezartzeko eta Nafarroako Polizia Autonomikoa den Foruzaingoko kideen erretiro-adina aurreratzeko prozedura ofizioz hastekoa. CSIF erakunde sindikalak (2017ko abuztuaren 1eko eskaera) eta Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak (2017ko irailaren 28ko eskaera) eskatuta eman zen erabaki hori.

– 2017ko abenduaren 1ean, Gizarte Segurantzaren Antolamendu Juridikoaren Zuzendariordetza Nagusiak mezu elektronikoa bidali zion Barneko zuzendari nagusiari, honako hau jakinarazteko: “Idazki honen bidez, jakinarazten dizugu 2017ko urriaren 26an espedientea helarazi zaiola Estatu Idazkaritzari, Gizarte Segurantzaren sisteman koefiziente murriztaileak ezartzeko eta erretiro-adina aurreratzeko prozedura orokorra arautzen duen azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen diren nahitaetzko txostenak egin daitezten.”

– 2018ko martxoaren 23an, Barneko zuzendari nagusiak informazioa eskatu zion Gizarte Segurantzako Antolamendu Juridikoaren Zuzendariordetza Nagusiari CR 3/2017 espedientearen izapidetze-egoerari buruz. Erantzuna 2018ko apirilaren 5eko idazkiaren bidez eman zi-

tzaion. Idazki horretan, honako hau aipatzen da hitzez hitz:

“Zuzendaritza Zentro honek 2017ko urriaren 26an bidali zion espedientea Enpleguko Estatu Idazkaritzari, Gizarte Segurantzaren sisteman koefiziente murriztaileak ezartzeko eta erretiro-adina aurreratzeko araubide juridikoa eta prozedura orokorra arautzen dituen azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen diren txostenak eta izapidetak egin zituzaten; beraz, ez dago prozeduraren egungo egoerari buruzko informaziorik.

Hala ere, azpimarratu beharrekoak dira esku hartzen duten organoen aniztasuna eta azaroaren 18ko Errege Dekretuaren 11.2 artikulua eskatzen dituen nahitaetzko txostenen konplexutasun teknikoa eta garrantzia, bai eta arau-txostenak egiteko aukera ere.

Nahitaetzko azterlanak edo/eta azterlan osagarriak egin ondoren, eta azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren 11.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, Enpleguko Estatu Idazkaritzak sindikatuei eta enpresaburuen elkarteei eta prozedura hastea eskatu dutenei —horixe baita oraingo kasua— jakinaraziko dizkie egindako azterlan eta txosten guztien emaitzak, beharrezkotzat jotako alegazioak egin edo interesgarritzat jotako dituen txosten tekniko guztiak aurkezteko”.

Aipatutako txosten eta azterlanak jasotzeko zain gaudela, eta txosten horietan Nafarroako Gobernuari (Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua) dokumentazio berria aurkez dezan eskatzeko aukera badagoenez, Zuzendaritza Nagusi honek ez du inolako kudeaketarik egin aurtengo abuztuaz geroztik.

Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak egin asmo dituen kudeaketa-lanei dagokienez, Estatu Gobernu formalizatzen denean, izapidetze-egoerari buruzko informazio berria eskatuko da.

Hala ere, espedientearen edozein prozedura-aurrerapen azaroaren 18ko 1698/2011 Errege Dekretuaren 11. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako faseen arabera gauzatuko da; izan ere, horren arabera, Enpleguko Estatu Idazkaritzak emandako ondorioak, txostenak eta azterlanak ikusita, Departamentuak Foruzaingoarenekin erretiro-rako koefiziente murriztaileak aitortzeko egoki

diren datu eta alegazio guztiak emanen ditu, Estatuko organoek behin betiko proposamena egin aurretik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 30ean

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jabi Arakama Urriaga jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, euskaraz jakitea deialdi publikoetan merezimendu gisa baloratzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Jabi Arakama Urriaga jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (PES-00137). Haren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona oposizio bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona oposizio-lehiaketa bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez,

ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona merezimendu-lehiaketa bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez jakiteagatik ematen zen puntuazioa ere.

Galdera horri dagokionez, adierazi behar da Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian ez dugula eskatutako informazioa jasotzen duen erregistrorik. Informazio hori biltzeko, pertsona bat kontratatu behar dugu berariaz, zeregin hori bete dezan; izan ere, 2009. urteaz geroztik argitaratu diren Nafarroako Aldizkari Ofizial guztiak banan-banan aztertu behar dira, aldizkari horietan argitaratzen baitira lanpostuetara sartzeko eta lanpostuak hornitzeko deialdiak, eta hizkuntza komunitarioak eta euskara direla-eta esleitutako puntuazioa jasotzen duten atalen zerrenda bat egin behar da. Une honetan aurrekontuan dirurik ez dugu kontratazio hori egiteko. Nolanahi ere, uste dugu Geroa Bai talde parlamentarioak aipatzen duen informazio guztia publikoa dela, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan jasota dagoela; beraz, informazio hori eskatzen duen parlamentariak NAOn bidez eskuratu eta kontsulta ditzake behar dituen datu guztiak.

Nafarroako Gobernuak 2009tik hona oposizio-lehiaketa bidez egindako zer deialditan baloratu den euskara merezimendu gisa. Informazioa urtez urte xehakaturata jaso nahi dut, deialdi bakoitzean eskaintzen ziren lanpostu-motak eta lanpostuen kopuruak adierazita, bai eta euskaraz, frantsesez,

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, euskaraz, ingelesez, frantsesez eta alemanez jakitea merezimendu gisa baloratu deneko oposizio-lehiaketei eta lekualdatze-lehiaketei buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 31ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko abenduaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00138 idatzizko galdera egin du. Hona hemen horri buruz jakinarazi beharrekoa:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian ez dugu eskatutako informazioa jasotzen duen erregistrorik. Informazio hori biltzeko, pertsona bat kontratatu behar dugu berariaz, zeregin hori bete

dezan; izan ere, 2003. urteaz geroztik argitaratu diren Nafarroako Aldizkari Ofizial guztiak banan-banan aztertu behar dira, aldizkari horietan argitaratzen baitira lanpostuetara sartzeko eta lanpostuak hornitzeko deialdiak, eta hizkuntza komunitarioak eta euskara direla-eta esleitutako puntuazioa jasotzen duten atalen zerrenda bat egin behar da. Une honetan aurrekontuan dirurik ez dugu kontratazio hori egiteko. Nolanahi ere, uste dugu Navarra Suma talde parlamentarioak aipatzen duen informazio guztia publikoa dela, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan jasota dagoela; beraz, informazio hori eskatzen duen parlamentariak NAOren bidez eskuratu eta kontsulta ditzake behar dituen datu guztiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko abenduaren 23an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Pérez Arregui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, izapidetzen ari diren hirigintza-planei buruzkoa. Galdera 2019ko azaroaren 8ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Pérez Arregui jaunak 10-19/PES-00146 idatzizko galdera egin du. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, E-

txebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoe-tako kontseilariak atseginez igortzen dizu eskatutako informazioa:

Excel dokumentu bat erantsi da, gaur egun izapidetzen ari diren plan orokorren zerrenda jasotzen duena, horietako bakoitza zein fasetan dagoen adierazita, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren datuen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 28an

Bigarren lehendakariorde eta Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

UDAL PLAN OROKORRAK

HITZARMENA NOIZ SINATU DEN	Espedientea	Titularrak	Izenburua	Udalak egindako azken bidalketa	IZAPIDEEN EGOERA		
					Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren (LOEE) txostena	HASIERAKO ONESPENA	BEHIN BETIKO ONESPENA
2018/08/14	0009-OT03-2019-000008	ZARRAKAZTELUKO UDALA	ZARRAKAZTELU loee	2019/11/04			
2005/05/31	0009-OT03-2019-000007	BERIAINGO UDALA	BERIAIN loee	2019/10/10			
2017/06/19	0009-OT03-2019-000006	ERROIBARKO UDALA	ERROIBAR loee	2019/08/09	Txosten sektorialak emateko zain		
2017/06/19	0009-OT03-2019-000005	ITURENGO UDALA	ITUREN loee	2019/07/17	Txosten sektorialak emateko zain		
2017/06/19	0009-OT03-2019-000004	IBARGOITIKO UDALA	IBARGOITI loee	2019/05/16	2019-05-28an eskatua		
2017/06/19	0009-OT03-2019-000003	CASCANTEKO UDALA	CASCANTE loee	2019/04/10	Data honetan eskatua		
2005/06/21	0009-OT03-2019-000002	ERGOIENAKO UDALA	ERGOIENA loee	2019/02/25	Aldez aurreko loee txostena, 2019-06-06an igorria		
2017/09/01	0009-OT03-2019-000001	TUTERAKO UDALA	TUTERA loee	2019/02/21	Aldez aurreko loee txostena, 2019-07-23an igorria		
2017/06/19	0009-OT03-2018-000006	BASABURUKO UDALA	BASABURUA loee	2018/07/30	Sinadurarako aldez aurreko hitzarmena, 2019-11-13n igorria		
2017/06/19	0009-OT03-2018-000005	ARANTZAKO UDALA	ARANTZA loee	2018/07/24	Aldez aurreko loee txostena, 2019-05-15ean igorria		
2017/06/19	0009-OT03-2018-000004	IMOZKO UDALA	IMOTZ loee	2018/07/06	2019-06-12an sinatutako hitzarmena		
2017/06/19	0009-OT03-2018-000003	BERRIOBEITIKO UDALA	BERRIOBEITI loee	2018/07/04	Aldez aurreko loee txostena, 2018-09-05ean igorria		
2005/04/21	0009-OT03-2006-000001	ALLOKO UDALA	ALLO, udalaren hirigintza plana	2019/07/25		Zuzentzeko errekerimendua, 2019-11-14an igorria	
2008/10/29	0009-OT03-2018-000002	CINTRUENIGOKO UDALA	CINTRUENIGO loee	2018/04/10	Aldez aurreko loee txostena, 2019-04-12an igorria		

2017/06/19	0009-OT03-2018-000001	ELOKO UDALA	ELO loee	2018/10/29	Aldez aurreko hitzarmena, 2019-03-25ean			
2005/01/10	0009-OT03-2017-000004	UHARTE-ARAKILGO UDALA	ARAKIL udal plan orokorra	2018/06/25			Txosten orokorra 2018-07-03an igorri zen	Errekerimendua 2017-10-09an igorri zen
2004/10/04	0009-OT03-2008-000001	ITZAGAONDOKO UDALA	ITZAGAONDOA udal plan orokorra	2016/12/22				
2005/02/18	0009-OT03-2017-000003	UHARTEKO UDALA	UHARTE loee	2017/05/31	Errekerimendua 2017-12-01ean igorri zen			
2005/02/03	0009-OT03-2017-000002	CADREITAKO UDALA	CADREITA loee	2017/05/17	Aldez aurreko hitzarmena, 2018-09-06an			
2005/06/23	0009-OT03-2011-000017	NOAINGO UDALA (ELORTZIBAR)	NOAIN (ELORTZIBAR) udal plan orokorra	2011/11/24			Txosten orokorra 2012-03-07an igorri zen	Errekerimendua 2015-09-18an igorri zen
2005/04/21	0009-OT03-2012-000009	MIRANDA-ARGAKO UDALA	MIRANDA ARGA udal plan orokorra	2015/07/14				Errekerimendua 2019-07-22an igorri zen
2004/10/04	0009-OT03-2017-000001	ESLABAKO UDALA	ESLABA udalaren hirigintza plana	2019/06/06				Errekerimendua 2017-11-06an igorri zen
2008/07/03	0009-OT03-2013-000015	CABANILLASKO UDALA	CABANILLAS udalaren plan orokorra	2017/10/10				Errekerimendua 2017-06-25ean igorri zen
2005/06/20	0009-OT03-2010-000001	ANUEKO UDALA	ANUE udal plan orokorra	2019/06/03				Errekerimendua 2017-06-25ean igorri zen
2004/11/09	0009-OT03-2014-000010	ORBAIZETAKO UDALA	ORBAIZETA udal plan orokorra	2019/04/12				Errekerimendua 2019-08-27an igorri zen
2008/05/20	0009-OT03-2013-000014	LARRAGAKO UDALA	LARRAGA udal plan orokorra	2017/06/20				Errekerimendua 2019-03-05ean igorri zen
2007/05/28	0009-OT03-2011-000014	ENERIZKO UDALA	ENERITZ udal plan orokorra	2019/01/31				Errekerimendua 2019-04-10ean igorri zen
2006/12/20	0009-OT03-2016-000004	BETELUKO UDALA	BETELU loee	2018/01/16	Aldez aurreko hitzarmena, 2018-06-07an			
2008/09/26	0009-OT03-2016-000001	URRAULGOITIKO UDALA	URRAULGOITI udal plan orokorra	2017/10/30			Txosten orokorra 2019/06/28an	
2010/01/11	0009-OT03-2015-000008	LABAIENGO UDALA	BEINTZA-LABAIEN udal plan orokorra	2018/12/18			Txosten sektorialak jasotzeko zain	

2004/11/10	0009-OT03-2015-000004	ZIZUR ZENDEAKO UDALA	ZIZUR loee	2019/11/13				Errekerimendua 2019-11-14an igorri zen
2012/06/12	0009-OT03-2015-000002	ARGUEDASKO UDALA	ARGUEDAS udal plan orokorra	2019/02/28				Errekerimendua 2016-07-04an igorri zen
2006/09/18	0009-OT03-2014-000009	CASTEJONGO UDALA	CASTEJÓN udal plan orokorra	2016/05/15				
2010/03/09	0009-OT03-2014-000004	PITILLASKO UDALA	PITILLAS loee	2017/02/21			Errekerimendua 2017-09- 13an igorri zen	
2012/10/16	0009-OT03-2014-000003	VILLATUERTAKO UDALA	VILLATUERTA udalaren hirigintza plana	2017/11/21				Txosten orokorra 2019/04/12an
2006/10/10	0009-OT03-2014-000001	EZKABARTEKO UDALA	EZKABARTE udalaren hirigintza plana	2019/06/03				Errekerimendua 2019-08-19an igorri zen
2005/04/21	0009-OT03-2013-000013	LARRAUNGO UDALA	LARRAUN loee	2019/06/11			Errekerimendua 2019-10- 18an igorri zen	
2007/10/01	0009-OT03-2013-000009	OLAIBARKO UDALA	OLAIBAR udal plan orokorra	2019/06/19				Errekerimendua 2019-08-28an igorri zen
2004/06/21	0009-OT03-2013-000008	TXULAPAINGO UDALA	TXULAPAIN udal plan orokorra	2018/11/23				Errekerimendua 2019-02-13an igorri zen
2009/11/23	0009-OT03-2013-000007	BAZTANGO UDALA	BAZTAN - loee	2015/04/07			Errekerimendua 2016-03- 15ean igorri zen	
2008/10/08	0009-OT03-2013-000001	CORELLAKO UDALA	CORELLA - udal plan orokorra	2013/01/28				Errekerimendua 2019-06-14an igorri zen
2008/03/31	0009-OT03-2012-000006	SANTAKARAKO UDALA	SANTAKARA loee	2012/12/10			Aldez aurreko hitzarmena, 2018-09- 20an	
2005/06/29	0009-OT03-2012-000004	ARANGURENGO UDALA	ARANGUREN udalaren hirigintza plana	2019/07/25				Errekerimendua 2019-11-11n igorri zen
2009/07/31	0009-OT03-2011-000013	ALESBESKO UDALA	ALESBES udalaren hirigintza plana	2015/01/13				Txosten orokorra 2016- 05-04an
2008/03/31	0009-OT03-2011-000007	TULEBRASKO UDALA	TULEBRAS udal plan orokorra	2013/11/06				Errekerimendua 2014-07-24an igorri zen

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa gaurkotze eta aldatze aldera Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak egindako proposamena eta Zerbitzu Juridikoak horri buruz emandako oniritzia, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako hau ERABAKIDA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, erabaki honi atxikia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendu ekonomiko-finantzarioa

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aurrekontuak.

1. Nafarroako Parlamentuaren izaera eta antolaketaarekin bat, haren aurrekontuak prestatuko dira kontuan harturik diru-sarreraren eta gastuen izaera ekonomikoa eta objektiboa.

Horretarako, gastuak eta diru-sarrerak kapitulu, artikulua, kontzeptu, azpikontzeptu eta partidetan sailkatzen dira.

2. Nafarroako Parlamentua kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago, artikulua hauekiko xedapenekin eta etorkizunean eman daitezkeenekin bat. Legebiltzarraren Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra 2012ko abenduaren

17an Mahaiak hartutako erabakiaren bidez onetsi zen.

3. Aurrekontuetan baimendutako kredituak egituratzen dira gutxienez ere 5 digituz zehaztutako aurrekontu-partidetan.

Kredituen, horien aldaketen eta gastu-exekuzioko eragiketen kontabilitate-erregistratzea egingen da aurreko paragrafoan definituriko aurrekontu-partidan, ezertan galarazi gabe kontabilitate-jarraipena xehakapen-maila handiagoz egitea kreditu jakin batzuetan.

4. Kapitulu, artikulua, kontzeptu, azpikontzeptu eta partidaka antolaturiko egitura hori irekia da; horrenbestez, egokitzat jotzen diren partidak sortu ahalko dira, atipiko gisa.

2. artikulua. Aurrekontuak prestatu eta onesteko prozedura.

1. Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak proposaturik, Parlamentuko Mahaiak ekitaldiko aurrekontuen prestatetarako beharrezkoak diren jarraibide ekonomiko eta teknikoak zehaztu eta, kasua bada, onetsiko ditu.

2. Iraileko lehen hamabostaldian zehar, zerbitziburuek aurreproiektu-aurrerakin bana aurkeztuko dute, norbere zerbitzuan hurrengo ekitaldirako aurreikusitako ekintzak jasoko dituen, iritsi nahi diren helburuak zehazturik eta dituzten aurrekontu-beharrizanak kuantifikaturik. Hori guztia, Mahaiak onetsiriko jarraibideei atxikirik egingen dute.

3. Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak dokumentu bakar batean bateratuko ditu aurreproiektuak, eta dokumentu hori Nafarroako Parlamentuko lehendakariari igorriko dio, oroitidazki esplikatiiboarekin batera, urte bakoitze irailaren 20a baino lehen, hori gero Legebiltzarreko Mahaiaren gai zerrendan sartua izan dadin.

4. Aurrekontuen aurreproiektua Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsiko du, eta Eledunen Batzarrari igorriko dio, hark proiektua onetsi dezan.

5. Ekitaldi bakoitzeko urriaren 1a baino lehen, lehendakariak Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorriko dio Nafarroako Parlamentuaren aurrekontu-proiektua, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan txertatua izan dadin.

6. Zilegi izanen da aurrekontu-exekuziorako oinarri batzuk ere jasotzea aurrekontuetan. Oinarri horiek jasoko dituzte Legebiltzarraren jardura eta funtsak egokiro kudeatzeko beharrezkoak diren arau-egokitzapenak eta berariazko neurriak.

3. artikulua. Kredituen lotura juridikoa.

1. Gastuetarako kredituek izaera mugatzaile eta loteslea dute haien zenbatekoari eta helburuari dagokienez. Muga horren betetzea egiaztatuko da kapitulu ekonomikoaren lotura juridikoaren mailan (digitu bat). Lotura-maila horretatik salbuetsita daude:

– Langileria-gastuak: 10, 11, 12 eta 16. artikulua. Artikulu mailakoa izanen da lotura.

2. Betiere lotesle izanen dira, gastuen egoera-orrietan azaltzen duten desagregazio-mailarekin, honako hauetarako kredituak:

a) Ondasunetan eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntetan, honakoetarako direnak: “jantziak”, “protokolo eta ordezkarietako arretak” eta “bidaia ofizialak”.

b) Inbertsio errealak, finantzaketa atxikia duten proiektuei dagokienez.

c) Dirulaguntza izendunei dagozkienak.

d) Erregelamendu honen II. kapituluaren aurreikusitako aurrekontu-aldaketen ondorioz gehitu edo sortu direnak.

3. Aurreko apartatuetan xedatuari jarraikiz, kasuko aurrekontu-partidak lotura juridikoko poltsetan multzokatuko dira.

4. artikulua. Lotura juridikoaren mailaren efektuak.

1. Baldin egitekoak diren gastuen zenbatekoak aurrekontu-partidaren kontsignazioa gainditzen badu aurreko oinarrian aipaturiko lotura-mailak gainditu gabe, gastu horiek behartuko dute, haien premia justifikatu ondoren, kasuko lotura-esparruan dauden partidaren arteko aurrekontu-doiketa egokiak egitera, aurrekontu-aldaketen araubide orokorrari lotu gabe.

2. Aipatu lotura-poltsetan sarturik egon ahalko da haien izaera ekonomikoaren arabera edozein gastu, baita berariazko aurrekontu-partida gisa espresuki aintzat harturik ez dagoenean ere. Kasu horretan, kontabilitate-dokuntzak kasuko aurrekontu-partida kontsignatuko du.

II. KAPITULUA **Aurrekontu-aldaketak**

5. artikulua. Aurrekontu-aldaketak.

1. Gasturen bat egin behar bada horretarako behar besteko kontsignazio egokirik egon gabe, eta lotura juridikoko maila gainditzen badu, 4. artikulua ezarritakoari jarraikiz, kasuko aurrekontu-aldaketako espedientea izapidetuko da.

2. Edozein aurrekontu-aldaketa egiteko, beharrezkoa izanen da gastua justifikatzen duen proposamen arrazoitu bat, proposamena egiten duen zerbitzuak izenpetua, zeinak baloratuko baitu zer eragin duen aldaketa horrek aurrekontu-onespenaren unean aurreikusitako ziren beharrezkoen asebetetzean.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aurrekontu-aldaketari onespina eman baino lehen, Kontu-hartzaileak txostena egingen du.

6. artikulua. Kreditu bereziak eta kreditu-gehi-garriak.

Ekitaldian egin behar diren aurrekontu-aldaketak ezin badira gauzatu kreditu-gehi-kuntza, -transferentzia, -sorkuntza edo -sartzearen bitartez, Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin adosturik, Nafarroako Gobernuari proposatuko dio foru lege proiektu bat onetsi dezan, kasuaren arabera kreditu berezi bat edo kreditu-gehi-garri bat emateko.

7. artikulua. Transferentziak, zabalkuntzak eta sorkuntzak.

1. Kreditu transferentzien bitartez, eta aurrekontuen zenbatekoa aldatu gabe, aurrekontu-partida baten zenbateko totala edo partziala egotzi egiten zaio lotura juridikoaren beste maila bat duen beste partida bati.

2. Gastu arruntan eta kapital gastuen arteko transferentziak bidezkoak izanen dira, bakarrik, behar bezala justifikatutako bat-bateko gorabeherak medio ezinezkoa edo desegokia gertatzen bada gutxituko den partidari hasieran esleitu zitzaizkion beharrezkoen edo helburuak asetzeko.

3. Legeria orokorraren arabera zabalgarritzat jotzen diren partidez gain, ondoko kredituek ere izanen dute izaera hori, aitortzen diren betebeharren mugara bitarte:

a) Foru parlamentarietako diru-sariak ordaintzekoak direnek.

b) Talde parlamentarioentzako diru-sariak ordaintzekoak direnek.

4. Aurrekontuei buruzko foru legeetan kredituak zabalgarri gisa deklaratzeko beharrezkoa izanen da Eledunen Batzarrak kredituei izaera hori aurretiaz eman izana Parlamentuaren aurrekontu-proiektuan. Horien finantzaketarako, kasuko eskaera igorriko zaio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, horretarako beharrezkoa dena xeda dezan.

5. Legeria orokorrak aurreikusitako eragiketez gain, kredituak sortu ahalko dituzte aurrekontuetan aurreikusitakoez gorakoak diren diru-sarrerek.

8. artikulua. Urte anitzeko gastuak.

1. Urte anitzeko gastuen baimentzea edo gauzatzea baldintzaturik egonen da kasuko aurrekontuek ekitaldi bakoitzerako baimentzen duten kreditura.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak zilegi izanen du baimena ematea zenbait ekitaldiri egotzekoak diren gastu-konpromisoak hartzeko, urteko zenbatekoak kuantifikatu ondoren eta bost urterako gehienez, honako kasu hauetan:

a) Gastuaren exekuzio partziala egiten denean konpromisoa hartzen den ekitaldian.

b) Gastua osoki exekutatzen denean konpromisoa baimentzen edo hartzen den ekitaldiaren ondoko ekitaldietan, betiere baldintzaturik kreditua egotera hurrengo ekitaldiko aurrekontuan.

3. Urte anitzeko konpromiso aipatuak honako eragiketa hauetarako baino ezin izanen dira hartu:

a) Kapital transferentziak eta inbertsioak.

b) Ondasun eta zerbitzuetako gastuak, haien urtebeterako kontratazioa ezin xedatuzkoa denean edo antiekonomikoa gertatzen denean.

4. "Urte anitzeko" kalifikaziotik salbuesten dira gastu-konpromisoak, eratorriak direnean urtebetekoa baino gehiagokoa ez den eta bi aurrekontu-ekitaldiri eragiten dien indarraldia duten errentamendu eta zerbitzu kontratuetatik.

5. Hasierako aurrekontuan aurreikusi gabekoa edo haietan jasotakoak baino handiagoak diren diru-sarreraren gauzatzeak helburuei atxikitako kredituak sortu ahalko ditu, legeria orokorrak aurreikusitako kasuetan.

6. Artikulu honetako aurreko apartatuek aipatzen dituzten konpromisoak irmo bihurtzen diren unean beharko dira kontabilizatu.

9. artikulua. Kredituak gaineratzea.

1. Hurren-hurrengo ekitaldiaren aurrekontuari kredituak gaineratzeko, Kontu-hartzailatza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak gaineragarri diren kredituen saldoen egoera-orri bat eta gaineratze-proposamen arrazoitua prestatuko ditu. Horiek batera, kasuko ekintza exekutatzeari buruzko ziurtasuna frogatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

2. Espedientea Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, hark onetsi dezan, eta gero kasuko ekitaldiko kitapen- eta kontu-dokumentuari erantsiko zaio. Horrek automatikoki ekarriko du kreditu gaineratuen finantzaketarako beharrezkoak diren funtsak atxikitzea.

10. artikulua. Kreditu globala edo kontingentzia funtsa.

1. Ekitaldian zehar sor litezkeen eta aurrekontu-kontsignazio nahikoa ez duten balizko beharrei aurre egin ahal izateko, kreditu global edo kontingentzia funts bat eratu ahalko da, baldin eta horren zenbatekoa ez bada gastuen egoera-orriaren ehuneko bat baino handiagoa. Kreditu edo funts horren aplikazioa kasuko aurrekontu-partidetara transferentzia egin eta gero eginen da, aurre egin beharreko betebeharen izaera ekonomikoaren arabera.

2. Transferentzia-proposamenak justifikatu beharko du ezinezkoa dela betebeharen horiek hasieran baimendutako kredituekin finantzatzea; edo, kasua bada, ez dela komeni edo teknikoki zaila dela betebeharen horiei erantzutea kapitulu honetan arautzen diren aurrekontu-aldaketei buruzko espediente arrunten bidez.

III. KAPITULUA **Gastuaren exekuzioa**

1. atala **Xedapen orokorrak**

11. artikulua. Faseak eta prozedura.

1. Gastu-aurrekontuaren exekuzioa ondorengo fase hauek izanen dituen espediente batean gauzatuko da:

a) Gastua baimentzea.

b) Gastua xedatzea.

c) Betebeharra aitortzea.

d) Ordainketa agintzea eta ordaintze materiala.

2. Orokorrean, exekuzio-espedientea hasiko da zerbitzu eskudunaren burutzak eginiko gastu-proposamenaren bitartez. Proposamen horrek zer gastu-mota egin behar den adieraziko du, gastua-

ren bidez kotasuna arrazoituko du, gastuaren zenbateko zehatza edo gutxi gorabeherakoa zehaztuko du, eta proposamengilearen ustez egotzi beharrekoa den aurrekontu-partida seinalatuko du.

3. Gasturako ekimena Mahaiarena, Lehendakariarena edo Legelari Nagusiarena denean, espedientea hasteko proposamen edo agindua helaraziko zaio, exekutatu izateko, gaigatik eskumena esleitua edo ardurapean duen zerbitzuaren burutzari.

4. Foru parlamentarien eta Legebiltzarreko langileen bidaia ofizialeterako aurrekontu-partidak exekutatzeke, nahikoa izanen da, behar adinako aurrekontu-zuzkidura egonez gero, Mahaiaren erabakia edo lehendakariaren ebazpena.

12. artikulua. Eskumenak

1. Parlamentuko Mahaiari dagokio behar diren erabakiak hartzea gastuak agintzeko; hots, gastu-exekuziorako, aurreko artikuluko 1. epigrafeko a) eta b) letretako faseez denaz bezainbatean, ezertan galarazi gabe hurrengo apartatuan xedatzen dena.

2. Legebiltzarreko Mahaiak lehendakariari delegatuztat jotzen da ondasun arruntetako eta zerbitzuetako nahiz material inbentariagarrietako gastuak agintzeko eskumena, baldin eta gastuaren zenbatekoa ez bada 15.000 euro baino gehiagokoa.

Gastu-aginduak baimentze- eta xedatze- edo konpromiso-faseak barne hartzen ditu.

3. Eginiko delegazioa baliatuz ematen diren ebazpenetan espresuki jasoko da inguruabar hori. Ebazpen horiek Mahaiak emandakotzat joko dira ondorio guztietarako, eta horien aurka bidezko errekurtsioak jartzen ahalko dira.

4. Parlamentuko lehendakariak agintzen ditu ordainketak. Ordainketaren gauzatze materialerako –dela eskudiruz, dela taloi, banku-transferentzia edo ordainketa telematikoa bidez– beharrezkoak izanen dira lehendakariaren edo hark eskuordetutako Mahaikidearen eta kontu-hartzailearen sinadurak. Ordainketa telematikoa egiten da aurreko paragrafoan adierazitako bi sinadurak dokumentuetan ageri direnetik aurrera.

5. Arestiko 2. apartatuak aipatzen duen delegazioa baliatuz agintzen diren gastuen berri Nafarroako Parlamentuko Mahaiari emanen zaio, gastu horiek jasoz Kontu-hartzailera eta Ekonomi Gaie-tarako Zerbitzuak eginiko hiruhileroko txostenetan.

13. artikulua. Justifikatu beharreko funtsak.

1. Ordainketa-baimentze, -xedatze, -betebeharren aitortze eta -agintze faseak egintza bakarrean biltzen dira, zeinak “ADOP” delako dokumentuaren izapidetzea eraginen baitu, behin gastua justifikatu eta gero, ondorengo kasu haue-tan:

– “Justifikatu beharreko ordainketa” izaerarekin igorritako funtsak.

– Kutxa finkoko edo kutxa lagungarriko aurrerakinak.

2. Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak zera dira, “justifikatu beharreko” izaerarekin igorritako funtsak, helburu dutenak bidaia-gastuagatiko ordainketei aurre egitea, garraioak eta dietei salbu, edo ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastu aldizkako eta errepikatuengatiko ordainketei. Kutxa finkoko aurrerakinaren zenbatekoa ez da ezein kasutan izanen 1.000,00 euro baino handiagoa.

3. Funts horiek jasotzen dituen behartuta dago jasotako kopuruen aplikazioa justifikatzera gastua egin ondoren, eta erabili gabeko funtsak itzultzera. Kontu-ematerako gehieneko epea bi hilabetekoa da funtsak xedatzen direnetik, eta betiere aurrekontu-ekitaldiaren barrenean egin behar da. Ezin izanen da funts-hornidura berri-rik eskatu aurrekoa kitatu gabe.

4. Funts-hornidurek ez dute aurrekontu-izaerarik izanen, eta kasuko aurrekontu-kredituen kontabilitate-egozpenak egiten dira gastua egin eta justifikatu ondoren. Kontu-ematea egin bitartean, emandako kopuruak diruzaintzako erregistro lagungarrietan eta horretarako prestatutako kontabilitate-moduluetan agerraraziko dira.

5. Kutxa lagungarriaren kasuan, funts-birjarpena egiten da gastu justifikatuaren zenbateko zehatzean eta gastu horien aurrekontu-aplikazioaren aldi berean. Ekitaldi-itxiera baino lehen, kutxa lagungarriko aurrerakinak kitatu egiten dira.

14. artikulua. Hasierako baimenak.

1. Ekitaldiaren hasieran baimendu eta xedatu da Nafarroako Parlamentuak aurretik hartu duen konpromiso bati erantzuten dion gastu oro; eta horretarako, dagokion “A” eta “D” edo “AD” agiria izapidetu eta kontabilizatuko da. Espezifikoki honako hauei aplikatuko zaie:

– Gaineratutako espedientei.

– Urte anitzeko konpromisoei, abian den ekitaldiari dagokion partean.

– Urtebeteko indarraldia duten kontratuei, bi aurrekontu-ekitaldi ukitzen dituztenean.

– Parlamentarien ordainsariei eta langileria-gastuei: 10., 11., 12. eta 16. artikulua.

– Talde parlamentarioen ordainsariei: 481. kontzeptua.

– Liburu eta bestelako argitalpenen erosketari: 608. kontzeptua.

2. Zilegi izanen da ekitaldiaren hasieran gastubaimenak onestea; horretarako, “A” agiria izapidetu eta kontabilizatuko da. Baimen horiek honako gaiei eta aurrekontu-kontzeptuei aplikatu ahalko zaizkie:

– Errentamenduak: 20. artikulua.

– Konponketak, kontserbazioa eta mantentzea: 21. artikulua.

– Bulego-materiala: 220. kontzeptua.

– Komunikazioak: 222. kontzeptua.

– Garraio-gastuak: 223. kontzeptua.

– Garbiketa-zerbitzua: 227. kontzeptua.

– Hornidurak: 228. kontzeptua.

3. Hornidura-, konponketa- eta zerbitzu-kontratuen berrikuntza edo luzapena ez da aipatu hasierako baimenetan sartuko, eta aparte izapidetuko da, oinarritzko espediente espezifiko baten bidez, salbu eta, zenbatekoagatik, espediente hori nahitaezkoa ez denean.

2. atala **Langileria-gastuak**

15. artikulua. Kontabilizazioa.

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak plantilla eta lanpostu-zerrenda onesteak esan nahi du oinarritzkoak nahiz osagarriak diren ordainketen ondoriozko gastua baimentzen eta xedatzen dela; edo, Lehendakaritzaren, Lehendakaritzako kabinetearen, beste kargu hautetsi batzuen eta behin-behineko langileen kasuan, Aurrekontuan ezarritako zenbatekoen ondoriozkoa.

Ondoren, “A” edo “AD” agiria izapidetuko da, ekitaldiaren hasieran benetan beteta dauden lanpostuei dagokien zenbatekoarengatik. Zenbateko hori aldatzen bada, dela funtzionarioak izendatzen direlako, dela langileak aldi baterako kontratatzen direlako, dela hasieran finkatutako ordainketak gehitu direlako, behar den gastua baimendu eta xedatuko da, eta hori gauzatuko da “A” edo “AD” agiri osagarrian.

2. Aurreko zenbakian adierazitako modu berean exekutatu da kuota sozialei eta aseguru-pri-meiei dagokien gastua, eta “A” edo “AD” agiria jaulkiko da, aurreikusitako kotizazioen zenbateko berarekin.

16. artikulua. Onespena eta komunikazioa.

1. Hileko nomina Kontu-hartzailtza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak egiten du; langileei egini niko ordainketak justifikatzen ditu, eta lehendakariak onetsiko du, Idazkari Nagusiak diligentzia egin ondotik, non adieraziko baita aipaturiko langileen zerbitzuak egiazki eman egin direla.

2. Telematikoki egingen da gizarte-aseguruen ordainketa.

3. Hileko nominaren eta beste diru-sarrera personal batzuen komunikazioa horretarako erabakitzen den prozeduraren bidez egingen da.

3. atala **Nafarroako Parlamentuko** **kontratuen berezitasunak**

17. artikulua. Kontratazio-espedienteen izapidetza.

1. Zenbatekoa 40.000 euro baino handiagoa duten obra-kontratuak eta 15.000 euro baino handiagoa duten hornidura-, konponketa- eta zerbitzu-kontratuak doitu egingen zaizkie Kontratu Publikoiei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak eta horren garapenerako erregelamendu-xedape-nek ezarritako prozedurei.

2 Kontratazio kudeatzen duen unitatea hau izanen da: kontratu-xedearen arabera eskudun den zerbitzua.

Kontratuen prestaketa egingen da kasuko kudeatze-unitatearen kontrolpean eta erantzukizunpean.

3. Honakoek osatuko dituzte kontratazio-mahaiak: Legebiltzarreko Mahaiko kide batek, zeina mahaiburu izanen baita; kontratu-xedearen gaian espezializaturiko bi teknikaririk; Kontu-hartzailtza bere gain hartuko duen pertsona, eta Zerbitzu Juridikoko pertsona batek, zeina idazkari jardunen baita.

4. Ulertuko da ezen Erregelamendu honek aipatzen dituen kontratuen zenbatekoetan ez dagoela sartuta Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

5. Balio zenbatetsia 40.000 euro baino handiagoa ez duten obra-kontratuen eta balio hori 15.000 euro baino handiagoa ez duten hornidura-

eta zerbitzu-kontratuen (munta txikiko kontratuen) espedienteak izapidetzeko, honakoa beharko da:

a) Kudeatze-unitatearen txostena, kontratuaren beharra arrazoitzen duena, eta kontratazio-organoaren baimena edo ebazpena, zenbatekoaren arabera. Zenbateko txikiko obra-kontratuaren kasuan, Administrazioaren obra-aurrekontua edo, kasua bada, kasuko proiektua eta/edo proiektu-ikuskapeneko bulegoaren txostena, bidezkoa denean.

b) Aurretiazko kreditu-erreserba.

c) Kontratuaren balio zenbatetsia 3.000 euro baino handiagoa denean, kontratazio-organoak gutxienez ere bi eskaintza eskatuko ditu, eta horiek espedienteari erantsiko zaizkio. Espedienteari halaber erantsiko zaio Nafarroako Parlamentuaren interesetarako kalitate-prezio harremanik onenekoa den eskaintzaren hautaketaren justifikazioa.

d) Gastu-onespena.

e) Faktura, zeina kontratu-agiritzat hartuko baita.

Baldin eta kontratuaren zenbatekoa ez bada 3.000,00 euro baino handiagoa, zilegi izanen da, administrazio-simplifikazioko ondorioetarako, a) puntuan zehazturiko informazioa edo dokumentazioa agiri edo txosten bakarrean bateratzea, non sinatuko baitu baimen-ematea kontratazio-organoak.

6. Kontratuaren xedea erdietsi ondoren, faktura guztiak berrikusi egin beharko dira, eta gaiaren arabera eskudun den zerbitzuaren buruak adostasun-sinadura ipini beharko die, ordaindu aurretik.

7. Ezein kasutan ez da zilegi kontratu-xedearen zenbatekoa zatikatzea edo banantzea oinarri honetan seinaturiko zenbatekoak iristearren edo gutxitzearen, edo prozedurak saihestearren. Zenbateko txikiko kontratu batek ezin izanen ditu xede gisa eduki errepikakorrek diren prestazioak, hala-ko moldez non, urtez urte, premia berari erantzuten dioten. Halatan, haien kontratazioa planifikatu ahalko da, prozedura arrunten bitartez egin ahal izateko.

18. artikulua. Kontratuen exekuzioa.

1. Kontratuen exekuzioa kontratugile den zerbitzuak gainbegiraturik eginen da, kontratazioa arautzen duten pleguei jarraikiz. Zerbitzuak zilegi izanen du hitzarturikoa leialki betetzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematea.

2. Kontratastak edo haren mendeko pertsonak kontratua behar bezala betetzeko eragozpen edo

traba izan daitezkeen egintzak edo omisioak egin badituzte, eskumena duen zerbitzuak zilegi izanen du agintzea neurri zehatzak har daitezen, itundutakoaren exekuzio txukuna lortzeko edo berrezartzeko.

3. Agindu horiek ez betetzeak kasuko zigorrak ezartzea ekarriko du.

19. artikulua. Kontratuen luzapenak.

Zerbitzu-kontratuen luzapenak berariazko espediente baten bitartez izapidetuko dira. Espediente horrek honako izapideak barne hartuko ditu:

a) Eskumena duen zerbitzuaren buruak egingandako proposamen arrazoitua, beharrianari eta komenigarritasunari buruzkoa.

b) Kreditu-ziurtagiria, Kontu-hartzaitzak emana.

c) Erabaki edo Ebazpena, luzapena baimentzekoa edo ez baimentzekoa.

20. artikulua. Kontratu-formalizazioa.

1. Kontratu bat administrazio-agiri bidez formalizatzen denean, kudeatze-zerbitzuaren arduradunak horren kopia bat bidaliko dio Kontu-hartzaitza eta Ekonomi Gaietarako Zerbituari.

2. Kontratu bat aldatzen, luzatzen edo suntsiarazten denean, aurreko apartatuko modu berean jokatuko da.

21. artikulua. Kontratuen kontu-hartzea.

1. Atal honetakoak izanik aurrekontua 3.000 euro baino gehiagokoa eta 15.000 eurorainokoa duten kontratuen kasuan, kontu-hartzaitzak kreditu-erreserbari buruzko ziurtagiria emanen du.

2. Gainerako kasuetan, kontu-hartzaitzak gastu-exekuzioaren fase desberdinak fiskalizatuko ditu, erregelamenduaren arabera aplikatzeko den prozedurari jarraituz.

3. Aplikatzekoak diren xedapenek agindurik kontu-hartze eginkizuna nahitaezkoa den kasuetan, kontratua kudeatzen duen unitatearen ardura izanen da espediente osoa kontu-hartzaitzari igortzea.

22. artikulua. Kontratuen harrera eta kontrola.

1. Kontratuaren xedea eginda eta Parlamentua horrekin asebeteta, faktura edo horren baliokide den dokumentua aurkeztuko da. Hori izapidetzeko, beharrezkoa izanen da zerbitzu eskudunaren buruaren adostasuna. Kontratu bete egin dela egiaztatzeko, harrera- edo adostasun-ekitaldi

formal bat eginen da, pleguak horrela ezartzen baldin badu.

2. Nahitaezkoa denean, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezarritakoari jarraikiz, kontu-hartzaileari jakinarazi eginen zaio harrera-ekitaldi formala zer toki, egun eta ordutan eginen den.

23. artikulua. Kontratuen prezioa ordaintzea.

1. Prestazioa eginda dagoenean, eta zerbitzu eskudunak fakturarekiko adostasuna adierazi ondoko hogeita hamar egun naturaleko epean, ordaindu egin beharko da kontratuaren prezioa.

Obra-kontratuen kasuan, ordaintzeko epea hogeita hamar egun naturalekoa izanen da, obrarekiko adostasun-ziurtagiriak jaulkitzen direnetik kontatuta.

2. Bestelako kasuetan, zilegi izanen da prezio-ordainketaren araubidea baldintza-pleguan ezartzea.

3. Emandako ondasun edo zerbitzuan okerrik antzemanaz gero, horren zuzenketa eskatuko da. Kontratatik ez badu horretarako emandako epean zuzentzen, Parlamentuak eginen du, behin betiko bermearen kontura. Berme-epea inolako okerrik gertatu gabe igarota, hori bertan behera uzteko izapideei ekinen zaie.

4. atala **Lankidetzahitzarmenak**

24. artikulua. Lankidetzahitzarmenak.

1. Nafarroako Parlamentuak sinatzen dituen lankidetzahitzarmenak, kontratuei buruzko legeria orokorraren aplikaziotik kanpokoak, honela izapidetuko dira:

a) Txosten arrazoitua, zerbitzu eskudunak egina, kasuko hitzarmenaren premiari eta erdietsi nahi diren helburuei buruzkoa.

b) Hitzarmenaren zirriboro edo proposamena.

c) Txosten juridikoa.

d) Kontu-hartzaitzaren txostena. Barne hartuko ditu kreditu-ziurtapena eta espedientearen fiskalizazioa.

e) Mahaiaren erabakia, kasuko hitzarmena sinatzeko baimena ematen duena.

2. Lankidetzahitzarmena administrazio-dokumentu bidez formalizatuta dagoelarik, zerbitzuaren arduradunak horren kopia bat bidaliko dio Kontu-hartzaitza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuari.

IV. KAPITULUA

Diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzioa

25. artikulua. Diru-sarrerak jasotzea.

Nafarroako Parlamentuarentzako zuzkidurak, haren aurrekontuetan Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik transferentzia gisa izendatuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunak aurretiazko hiruhilekoka igorriko ditu irmo-izaeraz.

Horretarako, eta arau orokor gisa, Mahaiak eskatuko du transferentzia bidezko diru-sarrera bezala urtean izendatuta daukan zenbatekoaren laurden bat ordain dakiola, non eta beharrian handiagorik ez dagoen.

26. artikulua. Diru-sarreraren kontabilizazioa.

Legebiltzarraren diru-sarreraren izaera dela-eta, egintza bakarrean eginen da haien kudeaketa. Antolamenduari buruzko erregelamenduko 53. artikuluan ezarritakoarekin bat, kontabilitateko arrazoi-hartzeak kontrol-egintza ordeztuko du.

V. KAPITULUA

Aurrekontuaren kitapena eta kontuen onarpena

27. artikulua. Ekitaldia ixtea.

1. Ekitaldia ixtea eta Legebiltzarraren aurrekontuen kitapena urte naturaleko abenduaren 31n izanen dira, eskubide eta betebeharren aitortpenari eta, hurrenez hurren, haien diru-bilketa eta ordainketari dagokienez.

2. Salbuespen gisa, zilegi izanen da betebeharrak aitortu eta, kasua bada, ordainketa agintzea hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 20ra arte, hartzekodun bakoitzaren eskubideak justifikatzen dituzten agiriak aldeztu aurretik aurkeztuta, baldin eta aurrekontu-ekitaldia bukatu aitzin egindako erosketak, obrak, zerbitzuak, prestazioak edo oro har gastuak izanik, horretarako kredituen kargura egin badira, kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ondoren.

3. Urtarrilaren 31 baino lehen kontabilizatuta egon beharko dute aurreko urteari dagokion ekitaldia ixteko eragiketa guztiak.

28. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren kontuak.

1. Kontu-hartzaitza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak kontuen aurreproiektua prestatuko du eta Idazkari Nagusiari aurkeztuko dio urte bakoitzeko martxoaren baino lehen, gero Legebiltzarreko Mahaiari igor dakion.

2. Aipatu aurreproiektua jaso ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Kontuen Ganberari igorriko dio, hark urteko fiskalizazio-txostena egin dezan.

3. Eledunen Batzarrari dagokio Nafarroako Parlamentuaren Kontuak onestea.

4. Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuaren Kontuak onetsi ondoko hogeita hamar eguneko epean, Foru Komunitatearen Diruzaintza Orokorrari itzuliko zaizkio betebeharren betetzeari atxikirik ez dauden funtsak.

Xedapen gehigarria. Mahaiaren eskumena eta ordezkio araudia.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoak ez du ukituko Mahaiak Nafarroako Parlamentuaren araubide ekonomiko-finantzarioa ezarri eta aldatzeko daukan ahalmena.

2. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeak ezarritakoari jarraiturik, aplikatzekoak izanen dira

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lege hori garatzeko ematen dituen erregelamendu-xedapenak eta ogasun publikoaren alorreko arau indardunak, ezertan galarazi gabe Nafarroako Parlamentuak bere langileria-araubidearen, izaeraren eta eginkizunen ondorioz dituen berezitasunen babesa.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Erregelamendu honek indarra hartzearekin batera indargabeturik geratuko dira berarekin kontraesanean dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 22an onetsitako Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendu ekonomiko-finantzarioa.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Nafarroako Kontuen Ganberako 2020. urterako plantilla organikoa eta 2019ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. apartatuek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horren aurreko urteko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundeko idazkari nagusiak urtarrilaren 17an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoek eginiko aldeko txostenak jaso ondotik, eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta, Ganberako auditoreei entzun ostean, ondokoa

ERABAKI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberako 2020. urterako plantilla organikoa onestea, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago.

Bigarrena. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2019ko abenduaren 31ko zerrenda onestea, zeina ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik baitago.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaraztea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. eranskina

Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2020. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitate	Lanpostua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	99.10		35
Auditorea	4	A	F			55	99.10		10
Auditorea	1	A	F	C1		55	99.10		10
Legelaria	2	A	F			55	82.10		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	C1		55	82.10		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	59.10		
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	1	B	F			55	59.10		
Auditoretzako teknikari-Kontuhartzailea	1	B	F			55	67.00		20
Auditoretzako teknikaria	18	B	F			55	67.00		
Auditoretzako teknikaria	3	B	F	C1		55	67.00		
Administratzailea:	1	C	F		X	55	74.50	12	
Administraria	6	C	F				62.68	12	
Administraria	1	C	F	C1			62.68	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				62.68	12	
Mandataria	1	D	F	B2			53.00	15	
GUZTIRA	44								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2. eranskina
Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuko 2019ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ezquerro Royo, José Luis	A	7	Idazkari Nagusia	Aktiboa
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	A	6	Auditorea	Aktiboa
Moreno Orduña, Karen	A	4	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	7	Auditorea*	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	A	-	Auditorea	-
Lanpostu hutsa	A	-	Auditorea	-
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	5	Legelaria	Aktiboa
Contreras López, José	A	7	Legelaria	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	6	Kazetari-itzultzailea*	Aktiboa
Garbayo Sánchez, José Antonio	A	6	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Aktiboa
Martínez de Estíbariz Ochagavía, Javier	B	5	Informatikako sistemen erdi mailako teknikaria	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	7	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Balduz Gil, Elvira	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Caños Hernández, Daniel	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Echarte Zambrano, Maite	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	7	Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	Aktiboa
García Cascante, M ^a Esperanza	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
García Logroño, José Javier	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	3	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martcorena Chapa, Javier	B	5	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	4	Auditoretzako teknikaria*	Zerbitzu bereziak
Navarro Pérez, Saioa	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Navarro Aristorena, Aitor	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Ondarra Erdocia, Rosario	B	1	Auditoretzako teknikaria*	Aktiboa
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	3	Auditoretzako teknikaria*	Aktiboa
Sabalza Navallas, Marta	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
San Martín Erice, Amaia	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Sarasa Amatriain, Nuria:	B	1	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Pueyo Resano, Francisco Javier	C	6	Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	7	Administratzailea:	Aktiboa
Casado Redín, Cristina	C	7	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	6	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	7	Administraria*	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	7	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, M ^a Francisca	C	6	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	-
Erburu Elizondo, Fernando	D	7	Mandataria*	Zerbitzu bereziak

* Euskararen ezagutzarekin

